

## TXILLARDEGI

Zorroagako unibertsital kanpusean lotu genuen Joxe Luis Alvarez Enparanza «Txillardegirekin burutu nahi genuen solasaldi zabala, batik bat euskara eta hizkuntzalaritzaren gaia aitzakitzat hartuta, nahiz eta betiere beste hainbat konturi heltzeko aukera baliatu asmoz ekin, Koldo Mitxelenarekin bezala. Txillardegirekin baino hamar bat egun aurretik mintzatu ginen Mitxelenarekin, eta bitarte horretan herioak jo zuen hain zuzen Erredereriko maisua. Bigarren elkar hizketa hau hasterakoan halako itzal baten zama uxatu behar izango genuela uste arren, hariari jario errezez jarraiki genion soseguz.

Gerraondoko bere injinaritza ikasketak eta beste mahairatu segidan, garaiko Euskal Herriko egoera politikoaz, ETaren sorreraz, exilioaz, marxismoa eta arazo nazionalaz berbetan murgildu ginen, eta Pariseko boladak, Aljeria eta Marruecoseko borrokek eta Sartreren eraginak hartu zuten gero txanda.

Hizkuntzalaritza eta soziolinguistikaren ildotik abiatuta ukitu genuen euskararen egoera, eta hizkuntza gutxiagotuen arazoak, plangintza beharrak bide beretik. Unibertsitatea eta literatura, Txillardegiren bizitzan present izan dira betidanik, eta aproposa gertatu zen bai eta ere bi gaiei eskeinitako lekua.

Besterik ere gordetzen da ondorengo orrialdeotan, kontu kontari mamitsutik ekarrita, konfidantzazko giro patxadatsuaren fruitu. Irakurketa gertatuko da orain aipatuaren lekuko.

Donostian, urriak 20.ean arratsaldeko 4etan, Zorroagako unibertsitatean



**ARGIA:** Zeintzu dira haurtzaroaz dituzun oroitzapenak? Emaizkiguzu datu batzu.

**TXILLARDEGI:** Donostiako Antiguoz auzoan jaio nintzen, 1929ko irailaren 27an. Gure aitona Tolosatik etorria zen 1904an, eta Antiguon, Txillardegiri izeneko baserria eta lurak zeuden inguruan eraiki zuen etxea; hortik dator kit «Txillardegia» goitizenena. Aitak negozio txiki bat jarri zuen Antiguon bere anaiarekin, «Litografia Alvarez Iraola», baina arrazoi ekonomikoengatik, Kubara joan zen aita, eta bitartean ni San Martin kalera joan nintzen bizitzera, nire amonaren etxera. Gerra hasi baino lehenago itzuli nintzen Antiguora.

Sanjurjoren sublebazioa gertatu zenean, 1934ean, sekulako beldurra zabaldu zen, eta anaia eta biok oso txikiak ginenez, gurasoek eraman gintuzten Oñatira, eta han izan nuen nik, bost urte nituela, euskararekin lehen kontaktua; ze nire etxean, bai aitak baita amak euskara bazekiten ere, ez zen euskaraz hitzegiten.

»Nire lehen ikasketak, gerra hasi eta berehala, Antiguoko «Colegio de Lurdes» izenekoan egin nituen. Geroago, zortzi urte eginda, Marianisten kolegiara bidali ninduten; hura izugarria zen: errekreoetan, alkondara urdina eta txapela gorria eta «viva Franco y la Virgen del Pilar» oihuka; han kantatzen zirenak... adibidez, kanta bat gogoratzen dut: «A la mar fuí a por naranjas, cosa que la mar no tiene...»; bazen beste bat, «canción popular vasca» deitzen zutena, eta hala zen: «Ya se llega la tren a la estación». Hortik atera kontuak.

**ARGIA:** Unibertsitate-ikasketak eta lehen gartzelaldia batera etorri ziren, ezta?

**TXILLARDEGI:** Marianistetan ibili nintzen 1938tik 1946ra. Ondoren, eta etxekoan erabakiz, ingeniari-tza ikasketak hasi nituen, lehenengo Donostiako CESen, Karlos Santamaria eta Joxemi Zumalabe irakasle nituela; eta 1949tik aurrera, berriz, Bilbon. Ordurako «Eusko Irakasle Alkartasuna»ren partaide nintzen, eta 1950ean atxilotu ninduten lehen aldiz, Bilbon. Garai hartan berri-berria zen Martuteneko gartzelan pasa nuen hilabete; gartzelara sartu eta berehala ilea labur-labur moztu zidaten, eta segidan, inkomunikazioan sartu —«periodo sanitario» deitzen zutena—, eta gogoratzen naiz, horrela nengoela, begiratzen nuela nire aurpegia, eta ikusten nuen bizarra luzeago nekala ilea baino. Orduko Fernandez Cuesta ministroaren teoria zen Espainian ez zegoela preso politikorik, eta, beraz, komunekin batera jarri ninduten; oso jende zelebrea ezagutu nuen gartzelan: bazen bat bere emaztea hil eta gero zerraz txikitu zuena, eta horrela...

**ARGIA:** Nola izan ziren PNVrekiko lehenengo harremanak?

**TXILLARDEGI:** Guzti hori pasa eta Bilboko Eskolan sartu nintzen, ingeniari-tza ikasten. Han ezagutu nuen Jose Mari Benito del Valle, eta ikusi nuen antzeko kezkak genituela, giro erdaldun hartan zerbait egin behar zela... Eta orduan gertatu zen gauza harrigarri bat: Jose Mariren anaiak, Luis Benito del Vallek, zita jarri zigun Koldo Retolazarekin. Hau zen orduan Ajuriagerraren konfidantza-gizona. Baina ez zigun ezer konkreturik proposatu, eta orduan erabaki genuen geure kontura montatu behar genuela zerbait; bilerak egiten hasi, boletín bat prestatu, 'Ekin' izeneko...

»Horretan genbiltzan orduan Jose Mari Benito del Valle, Julen Madariaga, Alfonso Irigoien, Mikel Barandiaran, Jose Manu Agirre eta ni neu. Retolazarekin izandako kontaktuen ondoren, erabaki genuen PNVrekin ez zegoela zer eginik, eta geure kontura zerbait egin behar genuela. Gure lehen ahaleginak Euskal Herria ondo ezagutzera bideratu ziren, eta horretarako, euskara ondo ikastera, batetik, eta Euskal Herriaren historia aztertzea, bestetik. Hortik aurrera, zelulak montatu genituen Gipuzkoan, Bizkaian, eta zerbait Araban eta Nafarroan ere bai. Propaganda egiten hastea erabaki genuen, 1955 urtean, eta orduan sortu zen problema PNVrekin: propaganda ikusi zuten momentuan konturatu ziren bazela beraiengandik kanpo talderen bat, eta

**N**ere lehen nobela  
*Ferrol-en soldadu mendiko  
baterian nengoela idatzi  
nuen*”

hau kontrolatu edo desegiteko erabakia hartu zuten; gu komunistak ginela, eta PNVn eszisiaoa montatu nahi genuela susmoak zabaldu zituzten. Guzti horrek tentsioak sortu zituen: gogoratzen naiz, behin, Donostian, afari baten ondoren etorri zitzaidan bat eta amenazua bota: «hola segitzekotan, halako batean agertuko haiz Paseo Berriko arroketa!», esan zidan, bero-bero eginda. Guzti horrek bultzatu gintuen geure taldea gehiago definitzera; erabaki genuen organizazio bat montatzea, bere izen propioaz eta ondo bereiztua, eta horri hasiera emateko asanblada bat egitea...».

**ARGIA:** Garai hartan gertatu zen aurrerantzean Euskal Herriaren bila-kaeran eragin handia izango duen mugimendu sozial eta politikoaren sorrera, ezker abertzalearena, eta zehatzago esanda, ETArek sorrera. Nola gertatu zen hau?

**TXILLARDEGI:** Definizio beharrak bultzaturik, 1958-1959 urteetan erabaki genuen mugimendua zehaztea, asanblada bat eginez, helburuak finkatzeko, eta izen bat eman; 1959an sortu zen ETA, eta sortu bezain laster asanblada konbokatzeak akordioa hartu genuen; hala ere asanblada atzeratu egin zen, hain zuzen orduan erori zirelako Benito del Valle eta beste batzuk Bilbon; handik pixka batera ni neu ere erori nintzen Gipuzkoako jendearekin; azkenean, ETArek asanblada Beloken bildu zen 1962an; hiru urte luzez atzeratu zen, beraz, ez gure borondatez, asanblada egiteko posibilitaterik ez zegoelako baizik.

**ARGIA:** Zergatik eman zenioten ETA izena erakunde berriari?

**TXILLARDEGI:** Izenaren beharra ikusi ondoren, eta posibilitate askoren artean, azkenean bi izen proposatu nituen: ETA (Euskadi Ta Askatasuna) edo ATA (Aberri ta Askatasuna). Orduan bizkaitarrek esan zuten ATA kaxondeotakoa izango zela, ze 'ata' bizkaieraz 'pato' dela, eta abar... Beraz, ETA onartu zen, nik uste 1959an izan zela.

**ARGIA:** Bazuen ideologia zehatzik momentu horretan?

**TXILLARDEGI:** Guk pentsatu genuen Euskal Herrian behar zela ezker aldeko mugimendu bat, abertzalea eta sozialista. Sozialismoari buruz ez genuen ideia oso zehatzik, noski; Franco hor zegoen, ez zegoen batere informaziorik... Gu sinpatiaz ginen sozialistak;



1958ko greban bidali gintuzten fabrike-tatik ni neu eta beste lau eskualde-buru, beraz, gure sinpatiak hasiera bate-tik alde batera doazela, hori egia da; baina gure sozialismoa ez zen posizio oso definitua.

**ARGIA:** Nola izan zen lantegitik bidaltze hori?

**TXILLARDEGI:** Donostiako enpresa batetik bota ninduten, 1958an, langileekin batera grebara atera nintzelako, eta hori beti izan da niretzat ohore bat; hain zuzen beste lankide bat ere gogoratzen dut orduan bota zutena, Agustín Gomez Segura, Mosku-ko Dinamon jokatutako errenteriar bat, oso Moskute-roa, eta ofizinatik bera eta ni bota gintuzten.

**ARGIA:** Handik bi urtetara berriro gartzelaratu izan zinen...

**TXILLARDEGI:** Bai, 1960an erori nintzen berriro, ETako burua nintzelaren akusaziopean; pentsatu behar da or-





duan oraindik ETA ez zela gauza haundirik, baina hala ere larria zen, ze ordurako ETAk erabakita zeukan ekintza armatuetan hastea, eta nik beldurra neukan gauza horiek jakingo ote ziren; nik dena ukatu nuen, kultur gizona nintzela eta halakoekin defendituz; baina orduan erori zen Juan Jose Etxabe, ni oraindik barruan nintzela, eta nik pentsatu nuen: «nireak egin du!, orain honen kantatuko du, eta akabo!». Etxabek ez zuen ezertxo ere kantatu; puskatu zioten mihingaina, eta kristonak egin, baina ez zuen ezer esan. Baina, poliziak kontatutako gauzengatik konturatu ginen bazekitela ETA zer zen, izenak ere, etab; orduan erabaki zen arrisku haundikoa zela ni hemen jarraitzea, eta alde egin behar nuela; horrela, 1960an gartzelatik ateratzean, 1961eko urtarilaren lehen egunean pasa nuen muga, egun horretako jende-mugimendu haundia aprobetxatuz, eta Parisera.

Urte horretan, 1961ean, ni Parisen nengoela izan zen ETAREN lehen ekintza gogorra, trenaren asuntua, eta ondorioz erori zen ETAKo organizazioaren parte haundi bat, eta buruzagitzan zegoen jendea.

**ARGIA:** Berrito planteatu ote zen Parisen PNVrekiko konfliktua?

**TXILLARDEGI:** Ez, ez. Ordurako erabakita zegoen erabat. Ni neu ibili nintzen Parisen Jose Antonio Agirrerekin, eta Irujorekin, ea posible zen zerbait egitea... Han esan ziguten jai zegoela, hor barruan Ajuriagerrak agintzen zuela, eta berarekin ez moldatzekotan, alferrik zela Parisera joatea. Saiatu ginen baita Solaun, Unzeta eta horiekin, gauzak konpontzeko, eta beti gauza bera:

inpresio ona ematen ziguten, baina ez zuten berek erabakitzen, Bilbon hartzen ziren erabakiak; Juan Ajuriagerrak erabakitzen zuen, eta punto. Beraz, alferrik zen Parisera, Donibanera... joatea, nahiz eta guk saio asko egin; Bilbon ere saiatu ziren Benito del Valle eta Madariaga Ajuriagerrarekin egoten, baina honen jarrera guztiz itxia zen; nire ustez, Ajuriagerra gizon nefastoa izan da; eta gero, Arzalluz eta horiek guztiak Ajuriagerraren eskutik etorri dira; PNVk daukan planteamendua Ajuriagerrak markatu zion...

**ARGIA:** Badirudi garai hartako ETAREN barruan bi mugimendu gertatu zirela, neurri batetan kontradiktorioak: batetik, marxismora hurbilketa, eta bestetik Fronte Nazionalaren ideia errepikatzen da...

**TXILLARDEGI:** Guk hasieratik mugimendu abertzale eta sozialista bat sortu nahi genuen; Belokeko lehen biltzarrean hau izan zen gai zentrala, eta horrela definitu zen ETA: mugimendu iraultzaile, sozialista eta nazio-askatasunerakoa. Lehen arazoa zera izan zen: marxismoarekin topo egin, eta hemen go irakasle batek, Victor Gomez Pin-ek atzo bertan esaten zidana, marxismoa ezagutu eta lehen inpresioa da gizartea Rayos X bidez ikusten duzula, eta nola-baiteko zorabioa sortzen zuen hemen jende askorengan marxismoa aurkitzeak. Baina nik uste Marxek subestimatu egin zuena, burgesiaren asmakizuna zela, merkatu nazionalak justifikatu nahian, etabar... ezagunak diren argumentoak; behar bada, Marxen garaian hori pentsatzea ulergarria da, baina gerora Historiak frogatu du, Marxen klase-azterketa egia izanda ere, problema nazionala dagoen lekuetan nahikoa distorsionaturik gertatzen dela eskema hori. Nik banuen beldurra garai hartan marxismoa har zitekeela ideologia berria bezala, eta ez instrumento kritiko gisan; orduan, horren inguruan sortu ziren lehenengo eztabaidak ETAREN barruan, marxismoaren interpretazioaz; nik uste denbora luzean gertatu den eztabaida dela hori, eta gaur egun ere hain batean hor dago, ez dago guztiz konponduta, bi kontradikzio horiek oso fuerteak direlako; zer esanik ez, abertzaletasun klasiko bat, klase-borrotatik at kokatzen dena ez da egia, baina eraberean klasismo hutsezko interpretazioa ere, problema nazionala dagoen lekuetan, ez da zuzena. Gainera, garai hartan 'felipe' deituek antimarxismoaren akusazioa zabaldu zuten, eta ni sekulako antimarxista famarekin gelditu nintzen, baina nik uste alde guztietatik egindako exagerazioa izan dela; gaur egun, herrialde sozialistetan gertatzen diren arazo nazionalai begiratzeari besterik ez dago, edo Jugoslavian dela, edo Sobietar Batasunean bertan, edo Moldavian... etabar luzea; halakoean ezin uka arazo nazionala dagoenik, nahiz eta gizarte kapitalistak ez izan. Guzti horrek erakusten du, nire ustez, problema nazionalak autonomia haundia duela. Marxismoa letra haundian, egia da, baina letra txikietan (eta hor sartzen ditut erlijio-arazoak, edo nazio-problemak), marxismoa normalean nahastu egiten da, problema horiek minimizatu egiten ditu.

**ARGIA:** Baina bestalde, Fronte Nazionalaren arazoa dago, eta esplikatut gabe gelditzen da zergatik frakasatzen duen behin eta berriro proposamen

horrek... Abertzaleen batasunik ez da lortzen... Gerra aurretik bazen presidentea, PNVk PSOErekin egin zuen paktoa, oraintsu ere berpiztu dena. Zergatik jarrera hori?

**TXILLARDEGI:** Nik uste PNVk tradizionalki pentsatu izan duela abertzaletasun beraiek zirela eta ez beste inor; «Partidu bat aski da nazio bat biltzeko» eta halako planteamenduak izan dira nagusi PNVn; beraz, beste talde guztiak abertzaletasunetik at kokatu ohi dituzte. Gezurra badirudi ere, ETARI buruz beti eraman izan du PNVk taktika bera, edo aipatu ez, edo aipatzekotan, mugimendu «kanpotar» bezala kontsideratu, edo Moskutik sortua dela, edo halakoak esanez... Planteamendu oso eksklusibista, beraz.

Hala ere, gertatu zaie gaur egun jada ezin dutela halakorik esan, ezin baitiote eskema hori EARI aplikatu, ezin esan Garaikoetxea Moskuk sortu duenik... Baina orain arte abertzaleen arteko pluralismorik ez du onartu nahi izan inoiz PNVk.

**ARGIA:** Gai honetatik apur bat urrunduz doa hurrengo galdera: zure lehen nobela 1957an argitaratu zen, «Leturiaren egunkari ezkutua», eta obra horretan ikus daiteke kontaktu-puntua Europako garai hartako korrante literario eta filosofikoarekin, eta are zehatzago, existentzialismoarekin. Zer suposatzen du zuregan existentzialismoak, ze balorazio egiten duzu gaurtik begiraturik, garai hartako kezka literario eta filosofikoetaz?

**TXILLARDEGI:** Garai hartan nik, bate-tik asko irakurtzen nuen, eta bestetik banuen idazteko gogoia barrenean; ba-

**G**arai hartan nigan eragina izan zuena antikolonismoaren borroka izan zen”.



ta edo bestea, gertatu zen, soldadu Ferrol aldera joan aurretik, hitzegin nuela bi pertsonarekin liburu bat egiteko nire proiektuaz: Mitxelenarekin eta Karlos Santamariarekin. Koldo Mitxelenak esan zidan nik neuk idatzi behar nuela zerbait, eta ez itzuli, nire lehen asmoa zena. Ordurako existentzialismoaren kezka ezagutzen nituen, baita neure barruan sentitu ere; beraz, nobela existentzialista idazteko erabakia hartu nuen, eta Ferrol-en, soldadu mendiko baterian nengoela idatzi nuen.

**ARGIA:** Eta handik urte gutxitara, paradoxa bada ere, existentzialismoaren habira joan zinen, Parisera. Ze esperientzia izan zen zuretzat kultura europar horrekin bizi-bizian topo egiteak, edota garai hartan hain urrunetik eta batzutan eredu gisa proposatzen zen europar gizarteak?

**TXILLARDEGI:** Horrek suposatu zidan, batetik, frantses-kulturan murgiltzea, bizi, irakurri, hitzegin etabar, urte luzez, frantsesez egin izan dut; horrek izan zuen bere eragina nigan. Nik uste garai hartan nigan eregina izan zuena, Frantziako kultura baino gehiago, anticolonialismoaren borroka izan zela; garai hartan gertatu ziren Tunez, Marruecos, eta batez ere Aljeriako borrokek, eta Sartre-ren posizioak eta, nigan influentzia haundia izan zuten (guretzako Sartre erreferentzia oso garrantzitsua izan da, dudarik gabe); ondorioz, Sartre irakurri nuen, gainera existentzialista zen neurrian ezagutzen nuen lehena gotik, eta bere jarrera publikoa eredu-garria iruditu zitzaidan, busti egin zen erabat aljeriarren alde... eta gero euskaldunen alde ere Burgosko prozesuaren garaian...

Horrekin batera, nire ikuspuntuan nolabaiteko erlatibizazioa gertatu zen... nola azaldu hau..., ba esango nuke hemengo jendea, Parisetik ikusita, perspektibarik gabe agertzen zela, pasa zela mutur batetik bestera, baina ez zuela globaltasunik bere ikuskeran... gauza ulergarria bestalde, frankismoak ezartzen zituen muga itxiak kontsideratuz... Beraz, gu askoz ere eszeptikoagoak izatea barrukoak baino, adibidez, marxismoari buruz... oso sintomatikoa da. Gu kritikoago ginen, beharbada perspektiba genuelako, eta areago Frantziako 68ko maiatzean gertatuak ikusi ondoren, gertaera haietan PCFk mantentutako jarrera, etab.

**ARGIA:** Zu orduan Parisen zeunden...

**TXILLARDEGI:** Ez, urte horretan Bruselasean nengoen, baina bertan ere mugimendu garrantzitsuak izan ziren, eta garai hartan gertatu zen Pragakoa ere. Guzti hori, beraz, guretzat konfirmazioa izan zen, aurretiaz PC ofizialetaz susmatzen genuen jarrera sektarioa, problema nazionalen gutxiespena eta guzti hori baieztatu egin zen, guzti horrekin eta Aljeriako aferarekin izan zuten jarreraren. Beraz, gu gogortu egin ginen marxismo ideologikoari buruzko jarreraren, beharbada gehiegi ere bai.

**ARGIA:** Zu beti izan zara oso kritikoa baita europar gizarteaz...

**TXILLARDEGI:** Frantzian, esaterako, ez dago sentsibilitaterik, Sartre eta intelektual konprometituak desagertu zirenetik, beste herriekiko. Orain bertan, Euskal Herriari buruz gertatzen ari dena ikusita, edota Maliko jendearekin izandako jarrerak, adibidez, argi erakusten dute sentsibilitate falta hori; ez da, hala ere, Frantziako kontua soilik, beste horrenbeste gertatzen da Alemanian; Belgikan arazo linguistikoa bizia dute, baina horretaz aparte, ezertxo ez...

**ARGIA:** Atzerritik 1976an itzuli zinen Euskal Herrira, transizioa deituaren prozesua pil-pilean zegoela. Nola aurkitu zenuen orduan Euskal Herria, eta nola baloratzen dituzu orduetik gaurrartekoak?

**TXILLARDEGI:** Orduan giro oso gogorra aurkitu nuen, ETArekin ekintza oso gogorak gertatu ziren orduan; bestalde, egia da baita maila politikoan, masa-mugimenduan, gauzak ez zeudela gaur bezain argi, horren erabakirik; nahasketa izugarria zegoen, despiste izugarria zegoen, eta horren frogarria, Rubial atera zela autonomiako

**S**ekulako antimarxista famarekin gelditu nintzen 'felipe' deituek hala zabaldu bait zuten".



buru, eta oraindik jende askok PSOeri botoa ematen zion; orain, aldiz, PSOEn botoa oso markatua da. Ezker abertzalea ez zegoen inondik ere orain bezain definitua. Horretan, dudarik gabe, aurrera egin dugu azken urteotan.

Hala ere, garai hartan dinamika haundia agertzen zen: Askatasunaren Ibilaldia gogoratu, gauza ederra bate-tik, eta magmatikoa bestalde, nahasia.

**ARGIA:** Geroago, urtebetez Estatu Batuetan ere izan zinen, beka bat lortu eta ikasten. Ze inpresio ekarri duzu gizarte amerikarraz?

**TXILLARDEGI:** Beldurra ematen dit, egia esan. Eusko Jaurlaritzak eman zidan beka bati esker joan nintzen, nahiz eta norbaitek gero horren faktura pasatu nahi izan didan, gauzak erabat konfundituz.

**ARGIA:** Bai, Arzallusen kritika publikoa izan zenuen, Jaurlaritzarekin oso kritikoa zinela baina haren beka aprobetxatzen zenituela leporatuz...

**TXILLARDEGI:** Bai, halako zerbait; oso ikuspuntu bitxia hori, ze nik uste dut Jaurlaritzak darabilen dirua ez dela bere propietate pribatua, ez da? hori guztion dirua da, eta agian beraien gestionatu egin behar dute. Nik beka eskatu nuen, egia; eta egia osoa esa-

tearren, Etxenike hor zegoelako eskatu nuen (Pedro Ignacio Etxenike, garai hartan Garaikoetxearen Gobernuan Hezkuntz Kontseilaria izan zena), eta beka eskatu, eta tribunal batek, eskaria epaitu ondoren, eman zidan beka (Antonio Tovar zegoen tribunalean, eta beste bi, ez naiz gogoratzen zeintzu). Ez nintzen joan, beraz, atzeko atetik; ofizialki egin nuen eskaria, eta hala eman zidaten.

**ARGIA:** Lehengora itzuliz, gizarte ipamerrikarrak beldurra sortzen dizula aipatu duzu. Zergatik hori?


**TXILLARDEGI:** Bada, han ez dela inolako kezkarik ikusten, ezertaz. Itzuli nintzenean, definizio bat ematekotan, gaztelaniaz esan nuen hura zela «el frigo burocrático»; itxurak gorde, bai, baina arazo sakonetaz, kezkarik batere ez dago.

**ARGIA:** Hala ere, zuk zeuk aipatu dituzu bertako minoria intelektualak, Chomskyren ingurukoak eta...

**TXILLARDEGI:** Baina Chomskyk berak, esate baterako, ingelesez idazten du, beraz saltzeko hizkuntzarik errazena, eta hala ere ez ditu zazpi mila ale saltzen... Hori ez da ia ezer.

**ARGIA:** Beste arlo batetan murgildu





nahiz, zeure arlo nagusia agian, euskarekiko kezka da. Nonbait irakurri dugu, duela gutxi aitortu zenuela garai bateko zure ideiak, esentzialismo linguistikoaren aldekoak, Sapir eta Whorf hizkuntzalariengan oinarrituak, orain zuzendu nahi zenuela...

**TXILLARDEGI:** Hau argitzeko, esan behar dut lehenengo «Hizkuntza eta pentsakera» liburua felipadaren garaian egin nuela, esan nahi da, garai hartako ideia nagusiak, sektore horretan, honako hauek ziren: «Hizkuntza hitz-zerrenda besterik ez da, eta ez du klase-borrokarekin zerikusirik», planteamendu seudomarxistak, beraz. Ideia horien kontra, eta Krutwigekin hitzegin ondoren, ikusi nuen bai Sapir baita Whorf oso interesgarriak zirela; hauek zera zioten: hizkuntzak markatzen duela pentsakera, ez klase aldetik, baina bai gauzak aztertzeke moduan. Beraz, nik horri ikusi nion orduan balio politiko bat ere bai.

Gero, Whorfen teoria kritikatu da izan da, oso erradikala zelako: berak zioen indio hopi batek eta mendebaltar batek ez zutela gauza bera ikusten, eta azkenean ondorioak oso urrun zihoazen; noski, hori ez da egia, ze azken finean itzulpena ere posible izan da beti, eta itzulpena posible izanik, horrek adierazten du atzean errealitate bera dagoela. Egia izango da, hala ere, nik usate, hizkuntzak nolabait mugatzen duela pentsakera, baina hala ere badago posibilitatea kodigo batetik bestera pasatzeko, beraz, azpian badago Chomskyk dioen «sakoneko egitura» edo zerbait.

«Hizkuntza eta pentsakera» idatzi nuenean, beharbada asmo apologetikoz idatzi nuen, eta Whorfen planteamentua hartu nuen garaian nagusi zirenetatik urrun agertzen zelako, nolabait frogatzen zuelako posible zela oso bestelako planteamentua.

**ARGIA:** Gero, linguistika sortzailearen aldeko ere ez zara agertu...

**TXILLARDEGI:** Egia esan, Fonologia sortzailean ni erabat konforme nago, baina Chomskyk agertzen duen filosofian, unibertsalen teorian eta, bada egia esan ez dakit momentu honetan zer pentsatu... Hain zuzen ere, aurreko Hizkuntzalaritza guztia unibertsal horien erlatibizazioa izan da. Chomskyrengan ez dakit noraino ez dagoen planteamendu oso cartesianoa gai horretaz. Teoria horietan, beharbada, une batetan maila zientifikoa baino urrunago doala iruditzen zait. Ze argi ikusten dena da, hizkuntza batetik bestera pasatzean diferentzia haundiak daudela. Diferentzia horiek ez direla sakoneko egiturakoak? Badaiteke, baina, non agertzen da sakoneko egitura? Hau ez da ikusten, bestea ordea bai, diferentziak nabarmenak dira. Nik ez dakit sakoneko egituraren kontzeptu hori, azken finean, ez ote den artificio bat, funtzionala, baina agian errealitatearen korrespondentziarik ez duena.

**ARGIA:** Teoria mailatik sozialera jo, eta soziolinguistikaz mintza gaitetzke; sarritan leporatu dizute erradikalegia zarela euskararen egoera eta alternatibak aztertzerakoan...

**TXILLARDEGI:** Begira, Euskal Herriko erradikalena ez da ezer esloveno baten ondoan, edo edozein flamenko edo katalanaren ondoan. Arazoa da gure artean dagoen axolagabekeria, hori bai dela estremo! Euskal Herrian hizkuntzari buruz gertatzen dena ez da beste inon gertatzen; edo hau zuzen-

duz, esango nuke herri zeltikoetan baik ez dela halakorik gertatzen, Britainian, Irlandan, Eskozian, hor bai, eta horietan hizkuntza galtuta dago!

Beste leku guztietan, hemen baino mila aldiz erradikalagoak dira, Galizian, adibidez; duela gutxi izan naiz bertan, eta esan didatenez, duela bizpahiru urte, Galiziako Parlamentuan ez du inork espainieraz hitzegiten; eta badakit, norbaitek esango didala «es que el gallego es casi igual que el español»; beno, orduan arrazoi gehiago espainieraz egiteko!; berdina baldin bada, zergatik ez hitzegin espainieraz, ez? Katalunian ere berdin.

Baina urrunago joanda ere, hartzen badugu Georgiako kasua (Xabier Kintana bertan izan da, eta esango dizu), han hizkuntz arazoak ez dira diskutitu ere egiten, ez eta komunisten artean ere: Georgiaren georgiartasuna ez du inork dudan jartzen, eta maila guzti-guztietan georgieraz egiten da.

Hemen, aldiz, ikusten diren planteamenduak: «Yo soy vasco, pero la lengua... en fin...», halako plantamentuak guztiz absurdoak dira, nik ez ditut inon ezagutu.

Beraz, estremista ni ez naiz, beste horiek dira estremistak, baina espainolismoaren aldekoak.

**ARGIA:** Nola definitzen duzu, koiuntura horretan, Euskal Herrian Euskaraz taldearen zeregina?

**TXILLARDEGI:** Hain zuzen, arestian esandakoari erantzuteko sortu genuen, duela zortzi urte, «Euskal Herrian Euskaraz» taldea; Lesakan bildu eta pentsatu genuen momentu egokia zela euskararen aldeko mugimendu bat sortzeko, baina euskararen erabilera praktikoa ziurtatu nahi zuena, ez deklarazio mailan, baizik eta erabilpenaren mailan; zoritxarrez, mugimendu honek ez du indar haundirik hartu, eta hau sintoma oso txarra da.

**ARGIA:** Horrek bazuen loturarik garai batetan aipatu zen euskararen Partidu bat sortzearekin?

**TXILLARDEGI:** Ez, halako saioak beste jende batek egin zituen garai batetan, baina ez dut uste emaitzarik lortu dutenik; zergatik? nire ustez horretarako kondiziorik ez dagoelako, nik uste hizkuntzaren arazoa ezin dela bereizi beste borroketatik. Beste herrietan ere izan ziren holako saioak, eta beti frakasatu egin dute; Irlandan, esaterako, izan zen Gaelic Leage deitua, eta porrot egin zuen. Nik esango nuke hizkuntzaren problematika mugimendu

global baten ardatz bihurtu behar dela, baina ardatz, ez aldameneko gauza; hau da, hizkuntza proiektu nazionalaren muina bihurtu.

**ARGIA:** Sarritan aipatu izan duzu euskaldun elebakarren beharra. Zergatik?

**TXILLARDEGI:** Gizarte batetan baldin eta elebakarrak eta elebidunak badaude, borroka azkenean elebakarren artean planteatzen da, eta elebakarrak bukatzen badira, eta hori da gure kasua, euskaldun elebakarrak bukatu direnez gero, erdal elebakarrak nagusitzen dira; hori horrela da arrazoi matematikoengatik: elkartzan baldin badira bost lagun, eta hauetatik hiru euskaldun eta elebidun, eta beste bi erdaldun hutsak, berehala ikusten da ze hizkuntza erabiltzen duten, nahi eta nahi ez, berak nahi ez badute ere, eh? Automatikoki, elebakarrek inposatzen dute hizkuntza. Nik egin dut liburu bat guzti hori azalduz, eta matematikoki frogatuz, eta hori irakurtzea besterik ez dago, prozesu hori guztiz matematikoa dela konturatzeko.

**ARGIA:** Sarritan kritikatu izan da baita Gobernuaren plangintzarik eza...

**TXILLARDEGI:** Hasteko, esan behar hor dugula Irlandako kasua erakusteko goitik datorren plangintza batek bakarrik ez duela gauza konpontzen. Hizkuntza bat herri oso baten tresna da, eta beraz, behetik gorako mugimendu indartsurik ez badago, jai dugu. Batzuk uste dute, hor Gasteizen puntu batzuk erabaki eta besterik gabe gauzak konponduko direla, eta hau ez da egia.

Bestalde, begira ze gertatzen den praktikan; gaur bertan etorri zaizkit hemen Unibertsitatean lan egiten duten bi emakume sutan, esanez oposizio bat

**A**bertzaleen arteko pluralismorik ez du onartu izan inoiz PNvk”




egin zutela eta ez dituztela onartu, esanez orain euskara eskatzen dutela, eta beraiek ez zekitela; emakume hauek esaten zidaten ez dagoela deretxorik... Zergatik den haserre hori? Nire ustez oso normala da: goikoak, errektoreak eman dezagun, Barberak, ez daki euskaraz, eta ez da ezer gertatzen; eta aldiz bi funtzionario hauei, euskaraz ez dakitelako, anulatu egin diete oposizioa. Eta sutan zeuden. Beno, ba ni konforme nago emakume hauen haserrearekin, ez da? Hemen hasi behar da goitik: Barbera, Recalde, horiek lehenengo, eta gero beste guztiak. Nik ez dut ulertzen nola izan daitekeen ezker-tiarra omen den pertsona batek egurra ematea behekoei eta ez goikoei. Hizkuntzaren mailan, jarrera gogor horiek izan behar dira goikoen aurrean, eta nik motibo honengatik izan ditut mila iskanbila goiko HBkoekin, PNVkoekin eta guztiekin. Behekoei egurra ematea, hori Francok egin zuen, ez da? Baina sozialismoaren eta demokraziaren ize-nean ezin da onartu hori. Egurra eman behar da goian, eta hori da zaila, hain zuzen ere. Barberarekin edo Recalderekin gertatzen dena ikusi ondoren, nik ez daukat argumentorik unibertsitateko bi funtzionario hauei ezer esateko, eta beren haserrearekin ados nago.

Bestalde, plangintza beharrezkoa dela argi dago, baina azterketa soziolinguistikoko guztiz zehatza egin ondoren, eta plangintza arlo bakoitzerako programatuz.

**ARGIA:** Plangintzaz hitzegin dugu, eta euskararen egoera sozialaz, baina nola ikusten duzu euskararen geroa hizkuntzaren beraren ikerketa mailan eta arautze mailan? Zein da, zure ustez, Euskaltzaindiaren eta beste erakundeen eginbeharra arlo horretan?

**TXILLARDEGI:** Nik uste hemendik aurrera ikerkuntza lana, linguistikaren arlokoa, gero eta gehiago Fakultateek egin behar dutela, Euskaltzaindiatik Unibertsitatara pasa behar dela apurka apurka egin behar hau. Euskaltzaindian, berriz, idazle den jendeak egon behar duela uste dut. Ikerketa-arloan, alde batetik azentuaren arazoak eta gelditzen dira, eta oraindik ikerketak sakondu behar dira, eta honetan ere Fakultateek dute azken hitza, teknikoan lana da hori; beste arlo bat hizte-gigintzarena litzateke, eta arlo honetan, kontzeptu berrietarako hitz berriak proposatu behar direnetan, nik uste UZEI oso ondo ari dela, eta honekin batera UEU eta ELHUYAR, eta hauek dute Euskaltzaindiak baino erantzukizun haundiagoa.





Hizkuntzaren prestaera, orain arte, Euskaltzaindiak egin du lehenengo partean, eta horri esker sortu da euskara batua; alorren errekupeazioan, berri, hortik aurrera, Unibertsitatean, Administrazioan, Negozio-munduan, etabar, euskara sartzeko egin behar direnak erabakitzea ez da Euskaltzaindiaren eginkizuna; horretarako daude, batetik Institutuzioak, eta bestetik Herri-mugimenduak. Bigarren arlo hau, euskararen erabilpenari dagokiona, politikoen eta herri-mugimenduen esku dagoela uste dut.

**ARGIA:** Ez zara Euskal Mundu Biltzarreko ekitaldietara agertu, zergatik?

**TXILLARDEGI:** Esan behar da Zorroagako jende askok ere ez dugula parte hartu; zergatik?. Niri dagokidanez behintzat, eskatu zidaten parte hartzea, eta zalantzan egon nintzen, baina ez joatea erabaki; nire ustez lotsagarria da UEU dabilen bezala ibiltzea, edo UPV/EHU bera, euskara aurrera eramanez ezinik eta, bapatean agertzen da hor guztiz kanpo-aldeko gauza bat, milioikada haundia gastatuz. Hemengo irakasle askori, esaterako, parte hartzeko eskaten zitzaion matrikula egitea eta ordaintzea. Baldintza horietan, noski, ez zuten joaterik onartu, ze norentzat egiten da Kongresua, bertoko irakasleentzat ere sartzea libre ez bada?

Nire aldetik, euskararekiko hipokresia iruditzen zait; UEUri aurten zazpi milioi eta erdi eman zaio, eta hor berriz ehundaka gastatu dituzte; ez nuen nahi hori nire presentziarekin inola ere justifikatuta gelditu ezin.

**ARGIA:** Zuzenean sartu gara Unibertsitatearen munduan, eta horretan ere bada zertaz hitzegin: UPV eta UEUren tarteko harremanak; gero, zeure erabaki pertsonala EUTGtik UPVra aldatzeko...

**TXILLARDEGI:** Lehenago ere noizbait hitzegin izan dut horretaz, esaterako, zergatik aldatu nintzen Deustua eta EUTGtik UPVra?: gauza sinplea da, ni ez naiz behin ere egon irakaskuntza pribatuaren alde, eta are gutxiago Elizak urte askotan izan duen monopolioaren alde; irakaskuntza herri-eskubidea dela deritzot; beraz, beti pentsatu izan dut nire postura ez zela Unibertsitate pribatuan, baizik eta publikoan; noski Unibertsitate publiko hau espainola dela, ez dagoela gure zerbitzutan, hori egia da; baina hori egoera politikoren erreflejoa da; pekatu txikiagoa da, nolabait esateko, Unibertsitate ofizialean egotea, eta ez Elizakoan.

Aitortu behar dut Unibertsitatean sartu izan banaiz, Linguistikaren arloan,

**N**ik ez dut balio gertatzen direnetaz abstrakzioa egin eta hotz-hotzean idazten jartzeko”.

hein haundi batean aita Altunari esker izan dela, berak sarrera eman zidalako Deustuko Unibertsitatean, baina horrek ez zuen mugatu behar nire libertatea geroari buruz, eta Monrealek proposatu zigunean, niri bezala Jesus Arzamendi, Rafa Redondori eta beste askori Deustutik irten eta ofizialean sartzeari, denak ahobatez erabaki genuen gauza bera.

**ARGIA:** Beste gaia UEUri buruzkoa zen...

**TXILLARDEGI:** Bai, hor beti esaten dugu UEUren izenetik lehen U kendu behar dela, ez da? Udako izatetik urte osoko izatera pasa, alegia. Baina horretarako dirua behar da, eta egoitza egokia. Orain, dakizuenez, UEUk ez dauka Bilboko bulegoa besterik, eta hala den bitartean, nik esango nuke UEU katalizatzaile bat dela; zeren katalizatzaile? Euskararen ingurukoa, batasun geografikoarena ere bai... Adibidez, egunotan UEUk Baionan dituen ekitaldietan nik neuk eman behar dut sarrera hitzaldia... eta gauza hauek, sinbolo-mailakoak izanik ere, inportanteak dira. Gero, beste harreman maila ematen da irakasle-ikasleen artean... Beraz, guztiz positiboa da UEU; ez instituzio bezala, maila horretan ez da ezer, baina proiektu baten adierazgarri bezala oso garrantzitsua da.

**ARGIA:** Orain Linguistikaz eta Literaturaz mintza gaitzke, gai bi hauek sarritan loturik agertzen baitira pertsona batengan, eta zagan ere hala da; hala izan zen baita egunotan hil den Koldo Mitxelena-ren kasuan; eta berau gogoratuz nahiko genuke hasi: noraino ibili zarete zure belaunaldikoak Mitxelena-ren ereduaren atzetan?





**TXILLARDEGI:** Dударik gabe, Mitxelena izan da euskarari buruz gehien zekien pertsona; Linguistika mailan, edo gutxienez Filologia mailan guztiz goi-mailako lanak egin ditu, eta guztiontzat izan da eredu; gainera, zuen zehaztasun-nahia ere eredugarria da. Hala ere, Mitxelenak, guztiok bezala, bere alorrak izan ditu, eta bere mugak.

Euskararen problematika ez da orain arteko azterketekin amaitzen, eta Mitxelena analista hobea izan da prospekzio-mailan baino: UZEIri buruz agertu zituen kezkek, edo euskara Unibertsitatean sartzeari buruz, kasurako, oso sintomatikoak dira; beharbada oso kritikoa zen, eta geroari buruz oso ezkor egon da. Maila horretan egin zituen kritikak gehiegizkoak ziren.

**ARGIA:** Eta Literaturaz hitzegiteko, eta zeure nobelagintzaz zehatzago, nola baloratzen duzu gaur zure lehenengo hiru nobelen aportazioa? Mantentzen duzu gaur Literaturarako kezka?

**TXILLARDEGI:** Nobelak idatzi nituen garaian, irakurri ere asko irakurtzen nuen, eta idaztea ere hortik etorri zen; gero, kanpora joan behar, bestelako aktibitateak... hitz gutxitan, denborarik ez, eta bizitzaren gurpilak harrapatu. Gaur egun ere, bizi dugun egoeran, nik ez dut balio gertatzen direnetaz abstrakzioa egin eta idazten hotz-hotzean jartzeko.

Hori da nire gaurko egoera, beraz: izugarri maite dut Literaturaren mundu hori, baina gero eta denbora gutxiago daukat horretan okupatzeko, zoritxarrez.

**ARGIA:** Hala ere, zure esperientziaz baliatuz, ze eritzi duzu aipatzen den arazo honetaz: euskara hizkuntza bezala oso mugatua dela literaturarako, errekursoak falta dituela..

**TXILLARDEGI:** Lehenengo gauza, nik ez dut uste euskara batuak sortzen dituela problema horiek. Beste arazoa da, zoritxarrez literatur tradizioirik ez dagoela, askotan lexikoa edo hiztegia guztiz mamitu gabe dagoela, hedadura semantikoak oso zabalak izanik, polisemia gertatzen dela, zehaztasuna galduz... Hauek benetako problemak dira. Baina nik uste hori baino problema haundiagoa dela gure artean oraindik

**E**uskal Herriaren problema nagusia gaur autodeterminazioa, askatasuna, hizkuntzaren berreskurapena... dira”



ez dela Garcia Marquez edo Italo Calvino bat sortu; eta hau aitortu beharrean, euskarari botatzen dizkiogu kulpak.

**ARGIA:** Zuk uste gaurko euskal literatura izan behar duela gure errealitatearekiko konpromisurik?

**TXILLARDEGI:** Askotan idatzi dut horretaz, eta nire eritziak ez dira horretan bat ere orijinalak. Sartreren ideiak egiten ditut nire, uste dut idazleak konpromisua duela bere gizartearekin, eta ez duela estratosferan egoteko eskubiderik; idazleak bestealde dimentsio publikoa du, eta busti beharra du, zapalduen alde, euskaldunon alde eta sozialismoaren alde. Idazle apolitikoaren kontra nago erabat.

**ARGIA:** Eritzi horren kontrakoek diotenez, konpromisu horrek kaskartu egiten du literatur lana...

**TXILLARDEGI:** Begira, horri buruz Graham Greene-ren hitz batzuk daude; hala zioen berak, liburu bat idatzi duenean, beti idatzi izan duela ondo eza-gutu eta oso sakon sentitzen zuen gai bati buruz, eta gehitzen zuen Disneyland (gauza polita baina aseptikoa) ez zitzaiola interesatzen.

**ARGIA:** Lehen esan diguzun arren denbora faltaz eta, urrunagotik bizi duzula literatur mundua orain, entzun dugu nobela baten proiektua baduzula eskuartean...

**TXILLARDEGI:** Beno, egia da, bai. Nobelaren parte bat egin daukat, duela urtebete, baditut laurogei folio inguru idatzita, eta bukatu egin behar ko nuke; baina ez dut paradarik lor-tzen.

**ARGIA:** Aurreratuko diguzu zerbait nobelaz?

**TXILLARDEGI:** Begira, nik garai batean esperimentalismoan jokatu nuen, «Haizeaz bestaldetik» adibidez...; orain-go honetan, aldiz, beste orientazio bat hartu dut: badu karga sinboliko bat, nobelak nire intentzioan bi irakurrera ditu, baina errealitatean funtsatutako nobela da, Euskal Herriko borrokan... Ez nuke gehiago aurreratu nahi.

**ARGIA:** Gaurko euskal gizartearen erreferentzia egin duzu, nobelaz hitzegiterakoan, baina nola ikusten duzu, bere arazo eta ezaugarri nagusietan, gizarte hau?

**TXILLARDEGI:** Beti esandakoa errepikatu behar dut, baina nik uste izan ala ez izanaren trantzean gaudela: inoiz



Euskal Herriak hizkuntza galduko balu, Euskal Herria ez litzateke izango. Beraz, herri bezala dugun arazo nagusia euskararena da, eta euskara salbatzeko ez baitago soluziorik lurraldetasunik gabe, eta lurraldetasuna behar baitira eskubide politiko inportanteak, ba zkenean esango nuke Euskal Herriaren problema nagusia gaur dela autodeterminazioa, askatasuna, hizkuntzaren berreskurapena, etabar. Hori esanda HBren linean jartzen naiz, normala, ni HBkoa naiz, gauza jakina da.

Herri bezala, beraz, identitate problema nagusia dugu, eta herri-nortasun horren ardatza euskara da.

**ARGIA:** Baina hemen gertatzen den paradoxa hau da: hauteskundeak begiratzuz, badirudi %70a abertzalea dela. Nola ulertu behar da hori? Zein da indar abertzaleen egoera?

**TXILLARDEGI:** Abertzalea da proiektu nazionala duena, eta teorian baita



# elkarrizketa

praktikan horren alde egiten duena; beraz, hori kontutan harturik, ez dago hemen horrenbeste abertzalerik; hemen badago regionalista asko, hori bai! Baina nazio-proiektua, esan nahi dut, autodeterminazioa, hizkuntzaren salbazioa bilatzeko bidean, ez da horrenbeste jenderik aurkitzen.

**ARGIA:** Eta herri honen egoera soziologikoaz zer diozu?

**TXILLARDEGI:** Begira, nik uste dut posible dela kanpotik etorritako jendea hemengoarekin identifikatzea. Baina badira posibilitate horren aurkako faktoreak; niri esan zidan behin Ignacio Ruiz Olabuenagak, Soziologoaren Elkartearen buru dena, Garaikoetxea Gobernuan zegoenean, honen kontseilari pertsonala zen... beno, ba Olabuenagak esan zidan bazituztela datu batzuk oso kezagarriak, eta hau adierazten zuten: kanpotik etorritako jendea, Gonzalez etorri arte, guztiz integrazioaren alde zegoela, talde sozial bezala; baina PSOE ailegatzean dexente aldatu dela hori, PSOEren mezua izan baita integrazioaren aurkakoa: «Zuek ez duzue integratu beharrik, segi hemen espainolak bezala eta gure laguntza izango duzue...»; beraz, PSOEek integrazioaren kontrako papera egiten du, eta oso kaltegarria da gure herriarentzat, PSOE izan da Euskal Herriak izan duen etsarik sakonena, eta soziologikoki jokatu du, etorkinen mentalidadez aldatu eraziz.

Hala ere, zer uste dudan nik fenomeno horri buruz? Ba nik uste PSOEek partida galduko duela, ze gurasoek oraindik ere badituzte erreflejo espainolak, baina horien seme-alabak nik uste hemengo sentitzen direla, eta hortik badut esperantza, asimilatze bidea hartuko dutela.

**ARGIA:** Nahi genizun galdera egin baita azkenaldian mundu-mailan agertzen diren jarrera ideologikoetat, sozialismo sobietarraren azken agerpenaz eta...

**TXILLARDEGI:** Argi dago kapitalismoaren bidetik ez dagoela etorkizunik, eta pertsona dexente batek ezin dezake kapitalismoa onartu etorkizuneko proiektu bezala; orain, bestalde, herrialde sozialistetan gertatzen dira azkenaldian liberalizazio mugimenduan, Txinan, adibidez, desestatalizazioa gertatzen ari da, eta Sobiet Batasunean Gorbachoven plana horixe da.

Bestalde, liberalizazio hori, ekonomian izateaz gain, politika mailan ere agerpena dute: Moskun, azkenaldian, 400 inguru klub politiko sortu dira, eta hurrengo elezioetarako listak aurkeztuko dituzte: pluralismo politikoa, beraz.

Garcia Marquezek esaten zuen oraintsu, Gorbachoven etorrera dela mende honetako gertaera politikorik inportanteena. Nire egiten dut baieztapen hori. Horko eboluzioa harrigarria da, eta nik ez dakit euskal ezkerrek nola ez dituen gauza horiek gehiago ezaugaritzen.

**ARGIA:** Etorkizunerako Euskal Herri-rako, nolako diseinua edo proiektua proposatuko zenuke zuk?

**TXILLARDEGI:** Estrapolazioak egitea ez da guztiz egokia, baina nik lehenguan aipatzen nuen Eslovenia, eta oso ondo iruditzen zait eredu gisa: herri modernoa soziologikoki, errepublika txiki bat, Jugoslavian federatua, baina libertate guztiakin, autojestionarioa... Beraz, burokrazia gabeko sozialismoa, herri gisa libertatea federazio batean... nik holako zerbait nahiko nuke.

**ARGIA:** Amaitzeko, elkar hizketa honetan nabaritu izan den, eta zeure bizitzaren ezaugarri nabaria den interbenzio politikoari buruz azken galdera edo erreflexio bat proposatuko dizugu: zuk uste duzu, gaurko gizarte konplexu honetan ere, kultur-gizonak edo intelektualak baduela eragin politikorik?

**TXILLARDEGI:** Polemika zaharra da; adibidez, Frantzia inpresioa dago 60. hamarkadan gertatu zen intelektualen loraketa hura borroka anticolonialistaren aurrean sortu zela, autooritate moral bat behar zelako Estatuaren astakeriak salatuko zituen; ez dela, beraz, kasualitatea Bertrand Russell eta Jean Paul Sartre bi inperio nagusietan sortzea, eta hain justu Indiako fenomeno

**E**uskal Herrian intelektualek badute paper bat, posibilitate bat izari herriko batekin agertzeko”.



gertatu zenean, edo Aljeria eta Indotxinakoa...

Europar borroka kolonialista nabarmen hori amaitu da; Euskal Herrian, aldiz orain bada halako egoera bat, eta horregatik nik uste hemen intelektualek badutela paper bat, posibilitate bat izari herrikoi batekin agertzeko.

**ARGIA:** Azken urteotako Euskal Herrian, zuk zeuk kontatu diguzenez, talde oso txiki batetik hasi zen, duela hogeita hamar urte, gero mugimendu sozial eta politiko zabala bilakatu dena...

**TXILLARDEGI:** Beno, hor betiko arazoa planteatzen da, eta Hegel edo Marx den buruz bera jarri behar dena; ez dut uste idealismoan erortzea komeni zaigunik, eta ideiak erabakitzaile direla pentsatzea, baina badirudi, problema nazionaletan behintzat, askotan intelektualak izaten direla problema lehenengoz ikusten dutenak. Edonola ere, gaur hemengo intelektual batek, izen hori merezi izateko, askatasunaren eta sozialismoaren militante izan behar du, eta ezker abertzalean busti.

Bestalde, norberaren helburu eta ideietan konfidantza izan behar dugu, eta esenplu batzuk emango ditut, interbentzio politikoaren efektibotasunaz:

lehen, Leninena; ezaguna denez, Leninena anai afusilatu egin zuten iraultzaren prolegomenoetan, eta 1911an oraindik, Leninek, jende nahikorik ez zuelako, disolbitu zuen Moskuko zelula... eta pentsa zer etorri zen handik sei urtetara. Bigarren adibidea, Txinan, Shangain, Mao Tse Tung eta horiek non bildurik ez eta, Shangaiko kaiako txabola batetan elkartzen ziren.

Eta azken anekdota, euskaldun batek zuzenik jaso: Agustin Zumalabek kontatzen du, bera Tunezen zegoela eta Burguiba ezagutu, eta galdetu ziola: «Baina zuek, Frantziaren kontra borroka gogorra erabaki zenutenean, zenbat zineten?» Eta Burguibak erantzun zion Zumalaberi: «On pourrait les compter avec les doigts d'une main... et je crois que j'exagere!».

Beraz, bost baino gutxiago zirela Frantziaren kontrako matxinada erabaki zutenean Tunezen. ●